

---

**HERNANI BHiko**  
**Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua**

---

**0. Zirriborrea**

- S1 IHP-a egitasmo bat da. Epe luzerako egitasmo estrategiko baten funtzioa bete beharko luke. Maiz, Hezkuntza Proiektuak ahaztu eta zokoratuak gertatu dira, Ikastetxeei zaila suertatzen zaielako, beren egunerokoan, Proiektuaren presentziari eustea.
- S2 Dokumentuak bere zeregina beteko du baldin eta hurrengo ikasturtetan erreferentzia puntu bihurtzen baldin bada. Eta horretarako bi ardatz zaindu beharko dira bereziki: 1) elaborazio eta onartze prozesuan zehar, ikastetxearen ezaugarrien, baloreen, prestakuntza estiloaren, diagnostikoaren, xedeen, lehentasunen... inguruko adostasun ahalik eta handiena sortu beharra; eta 2) onartu ondoren, ikastetxeko komunitateak argi izan behar du zein momentu, zein lanabes, zein protagonista... izango diren aproposak IHP-aren presentzia eta eraginkortasuna bermatzeko.

### **Non gara? Nondik gatoz?**

- 01 Hernani herrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Hezkuntza eskaintzen duen ikastetxe publikoa gara, hau da, 12 urtetik aurrerako gazteak, herrikoak zein eskualdekoak, hartzen dituen ikastetxe publikoa, eta inguruko enpresa eta langileen beharrei etengabeko prestakuntza eskaintzen diena.
- 02 Gure herrian Lehen Hezkuntzako bost zentro daude (lau publiko eta pribatu bat), bakoitza bere ezaugarri eta nortasunarekin, eta bertan gure gazteak era naturalean hainbat esparrutan elkartu egiten dira (kirolean, musikan, udalekuetan, festa ospakizunetan, e.a.), herriari bizitza, giroa emanaz.
- 03 Herri bizitza sustatzeko garrantzitsua da gazteek herrian ikasteko aukera izatea. Beraz, herriko gazte guztientzat hezkuntza eskaintza zabala eta osoa bermatuko duen ikastetxea izan nahi dugu, eta, horrekin batera, herrigintzan jardun herriko beste erakunde eta taldeekin batera (kulturgintzako taldeak, enpresak, udala).
- 04 2010eko maiatzaren 28an argitaratu zen Hernaniko Bigarren Hezkuntzako zentroak Hernani BHIn integratu zituen dekretua.
- 05 Honaino egindako bidearen jatorria bilatzeko denboran atzera egin beharra dago. LOGSE legea onartu zenean, lau ikastetxek eskatu zuten DBHa, HH-LH zuten hiruk eta Institutuak, eta espero ez bezala, HH-LH zuten hiru ikastetxeei eman zieten DBHa, lehendik zegoen Institutuari Batxilergoa utzirik (gerora institutua Lanbide Hezkuntzarekin fusionatu zen).
- 06 Aurrerago, 2004-2005 ikasturtean, Hezkuntza Ordezkaritzak proposatuta, bigarren hezkuntzako zentroyen fusioaren aukera landu eta eztabaidatu zen bi urtez. Eztabaida hartan oinarritzko txosten bat egin zen. Zentroetako batek ez zuen nahikotzat jo, eta bateratzea aukerakoa zenez, bertan behera geratu zen fusioa.
- 07 2009ko martxoan Hezkuntza Sailak ohartarazpen bat bidali zuen Hernaniko ikastetxe publikoetara integrazioa emango zela esanez eta urratsak eman behar zirela prozesua bideratzeko.
- 08 2009-2010 ikasturte gorabeheratsua eta zenbait unetan gatazkatsua eman ondoren, 2010eko maiatzean argitaratu zen integrazioa agintzen zuen dekretua.
- 09 2010-2011 ikasturtean, jatorriz kultura akademiko desberdineko lau ikastetxe bateratu ginen. Horrek egoera berri baten aurrean jarri gintuen, aurrez adostu gabeko hezkuntza proiekturik gabe, DBH1. maila bateratua ikasturte hasieratik abian jarri zen, eta une horretan ikastetxe berriaren izaera jasoko zuen proiektu bat eraikitzen lehen urratsak ematen hasi ginen.
- 09 Dekretuz emandako abiapuntua izan dugun arren, bertan elkartzen garen hezkuntza komunitate berri honetako partaide guztiek (irakasleek, gurasoek eta ikasleek) integrazioaren garapen arrakastatsuen aldeko borondate irmoa dugu,

eta hori lortzeko lana eta ilusioa jarri dugu. Horren guztiaren lekuko eskuartean duzuen honako hezkuntza proiektu hau.

### ***Gure ezaugarri nagusiak***

#### **Publikoa**

- 10 Gure herriaren eta gizartearen egoerari eta beharrei egokitutako hezkuntza-egitasmo propioa eskainiko duen ikastetxe publikoa gara. Euskal Herritik munduari begiratzeko helburuarekin, gure herriko hizkuntza eta kultur ondarea jaso eta hedatuko duen ikastetxea gara.
- 11 Euskal Eskola Publikoaren sareko kide garenez, bereizkeriarik gabeko gizarte-kohesioa, biztanle guztientzako aukera-berdintasuna eta jatorrizko desberdintasunak gainditzea izango da gure erronka.
- 12 Ikastetxe honen helburu nagusienetako bat, ikasle guztiei erantzungo dien azpiegitura egokia ziurtatzea izango da. Ikastetxearen hezkuntza egitasmoa gauzatzeko, hau da, gure herriaren beharretara egokitzen den kalitatezko hezkuntza eskaintzeko, behar diren baliabide material zein humano guztiak lortzen ahaleginduko den ikastetxea gara.

#### **Euskalduna eta Eleanitza**

- 13 Euskara da gure herriaren hizkuntza eta euskal kulturaren ardatza. Horregatik, euskara ikasketa-hizkuntza izateaz gain, eskola-bizitzako hizkuntza izango da. Eskolako jardueren hizkuntza nagusia eta integrazio hizkuntza sozializazio-esparru esanguratsuenetan.
- 14 Euskararen alde lan egingo dugu; euskararen erabilera sustatzea eta indartzea izango dugu helburu, euskararen aldeko ekitaldietan parte hartuz eta ekitaldi berriak sortuz.
- 15 Ikasle guztiek derrigorrezko irakaskuntza amaitutakoan bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea eta komunikazio gaitasuna garatzea lortu behar dute.
- 16 Bestalde, hizkuntzen erabilerari buruz hausnarketa egitea garrantzitsutzat jotzen dugu, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko estrategiak eskuratzeko, eta aurreiritziak eta hizkuntza estereotipoak baztertzeko.

### **Kulturartekotasunaren suspertzaile**

- 17 Kultura askotarikoa den mundu batean bizitzen ikasteko prestakuntza bermatzen ahaleginduko gara, eta etorri berri diren ikasleentzat eta bere familientzat txertatzen lagunduko dien bideak landuko ditugu.
- 18 Egungo egoerari erantzuteko, ikastetxea etorkinen ama hizkuntzak eta kulturak kontuan hartzen ahaleginduko da, harrera planak martxan jarriz, jatorri guztietako gazteen eta bere familien integrazioa eta sozializazioa lortzeko. Eginkizun horretarako lagungarriak izan daitezkeen baliabideak bilatuko ditugu, behar izanez gero taldeak egokituko ditugu, familiei denbora eskainiko diegu integrazio prozesuan laguntzeko, gertuko tutorizazioak egiteko, edo gizarte zerbitzuetako arduradunekin koordinazioa burutzeko.

### **Laikoa**

- 19 Ikastetxe hau akonfesionala da, errespetutsua sinesmen guztiekin. Ez ditu derrigortuko ikasleak eta ikastetxeko langileak eduki erlijiosoa izan dezakeen inongo jardueretan parte hartzen.

### **Hezkidetzaillea**

- 20 Hezkidetzaren helburua eskola ez sexista eta pertsonen arteko parekotasuna jorratzea eta lortzea da. Parekotasunak aniztasuna eta berdinen arteko diferentziak errespetatu egin behar ditu. Hezkidetzaren elementu zentrala izango da ikastetxeko balioetan eta barne-antolaketan garrantzi berezia izango du. Beraz, ezinbestekoa zaigu Berdintasun Plana ezartzea eta aurrera eramateko baliabidez hornitzea.

### **Inklusiboa eta aniztasuna, konpentsazioan eta elkartasunean oinarrituko dena**

- 21 Gure ikastetxeak desberdintasun pertsonalen eta kulturalen errespetua bermatuko du, eta desberdintasun sozio-ekonomikoek eta bestelakoek eskolatzean duten eragina gutxitzen eta behar bezala konpentsatzen ahaleginduko da.
- 22 Ikastetxeak aniztasunaren trataera egoki bermatzeko, gure hezkuntza proiektuak printzipio hauek jarraituko ditu: jatorri-desberdintasunaren aurrean, aukera-berdintasuna; desberdintasun sozialen edo pertsonalen aurrean (gaitasun fisiko, psikiko zein sentzorial ezberdinak), konpentsazioa; indibidualismoaren aurrean, elkartasuna; lehiakortasunaren aurrean, lankidetzaren eta talde-lana; bereizkeriaren aurrean, ekitatea; lanbide-trebakuntzarekin batera, pertsonaren garapen integrala.

### **Lanerako atea**

- 23 Langile kualifikatuak eta lanean agertuko zaizkien erronkei aurre egiteko gai direnak prestatuko ditugu: lanbide prestakuntza eskaintzen hasierako

prestakuntza gisa, langabetuentzat lan munduan sartu ahal izatekoa eta lanean dihardutenentzat jarraitua edo etengabekoa.

- 24 Lan munduak duen bilakaerari egokituko gatzazkio, inguruko enpresen eta gizartearen beharrei erantzun ahal izateko, eta komunikazio eta informazio-teknologia berrien ezarpena eta garapenaren aurrean trebakuntza egokia lortuko dugu.
- 25 Halaber, DBHko ikasketak gainditzin ez dituzten ikasleei, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programaren (HLPP) bidez erantzungo diegu.

### **Parte hartzea bultzatuko duen ikastetxea**

- 26 Honako eragile-talde hauek osatzen dute eskola komunitatea: ikasleak, irakasleak, gurasoak eta langile ez-irakasleak. Eragile talde bakoitzak ardura eta egiteko ezberdinak izango ditu DBHn, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan.
- 27 Hezkuntza-eragile guztiok hezkuntza-egitasmoarekin identifikatzea eta konprometitzea da oinarrizko helburua. Horretarako, ezinbestekoa da bideak eta lan egiteko erak zehaztea.
- 28 Lan egiteko erari dagokionez, kontsentsu bidezko erabakiak hartzera bideratuko duen antolaketan oinarrituko gara. Izan ere, kontsentsu bidezko erabakiak zenbat eta zabalagoak izan, orduan eta erabaki sendagoak izango baitira. Hainbat kargu pertsonal beharrezkoak izanik ere, talde-lana, ardura banaketa eta taldean hartutako erabakiak lehenetsiko dira.
- 29 Eremu bakoitzak (LH, Batxilerra eta DBH) ezaugarri ezberdinak ditu, beraz antolaketa berezia eta propioa behar du, eta dagozkion alorretan erabakitzeko ahalmena izango du. Era berean, hiru eremuen arteko koordinazioa ziurtatuko da. Horretarako, antolaketa horizontalean oinarrituko gara. Eragile talde bakoitzak, eta bereziki guraso, ikasle, ez-irakasleek, pisu desberdina izango dute dagokien eremuaren arabera.

### ***Konpartitzen ditugun balioak eta funtsezko ideiak***

- 30 Ikastetxeak elkarrekintzan oinarritutako prozesu dinamiko gisa ikusten du hezkuntza: ikasle bakoitzak dituen ahalmen fisiko, afektibo, sozial, artistiko eta sortzaileak garatu eta sendotuko ditu; neska-mutil bakoitzari pertsona aske, kritiko eta solidario izaten lagunduko dio; ikasleek hurrengo hezkuntza mailetan heziketa prozesua jarrai dezaten prestatuko ditu.
- 31 Zenbait ikasleek arrazoi fisiko, afektibo, intelektual nahiz sozialengatik, heziketa prozesua jarraitzeko behar bereziak dituzte, eta irtenbide egokiak aurkitzen saiatuko da.

## **Sinesten dugu**

- 32 Ikasketa esanguratsuetan; Ikasketen funtzionaltasunean eta diziplinartekotasunean; irakasle-ikasleen arteko harreman eta elkarlanean, baita beraien artekoan ere; talde-lanean; eskola ingurunean txertatuta dagoenez ikasleek errealitate sozial eta kulturalekin harremanetan jarriko dituzten ekintzetan; ahaleginaren eta lanaren balioetan; norberaren orijinaltasunean eta indibidualtasunean; ikasleari bere buruarekiko, ezaugarri, aukera eta mugekiko, irudi orekatua lortzen laguntzen dion heziketan; ikaslearen egitekoa era autonomoan eta beraien autoestimua garapenean; ikaslearen integrazioan (bere buruarekiko eta inguruarekiko); inolako diskriminaziorik (sexu, arraza, itxura fisikoa, maila soziala, ezaugarri psikikoak...) egingo ez den harreman markoan; natura eta kultur ondarearekiko errespetuan eta estimuan.

## **Eskaintza akademikoa eta hezitzailea.**

- 33 Hezkuntza sistema publikoaren baitan derrigorrezko bigarren hezkuntza burutzeko aukera eskainiko du, baita batxilergoak Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako zikloak eta Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak ere. Era horretan herriko ikasketa aukera sendotuko da.
- 34 Bestetik, Udalarekin eta inguruko herriekin (DOBH eskaintza dela eta) eta beste eragileekin harreman estuetan izango da kultur, kirol nahiz elkarbizitza maila hobetzeko, ekintzak antolatze, eta baita enpresa mundura hurbiltze aldera ere. Gizartean dauden beharrei egokitutako hezkuntza eskaintza sendoa eskainiko du.

## **Nolako ikasleak nahi ditugu?**

- 35 Herritar libre eta autonomoak lortzea izango da ikastetxearen helburua, gizartean txertatuak izanik gizartea hobetzen ahaleginduko direnak, elkartasuna, lana, saiakera eta ahalegina balioztat hartuko dituztenak.
- 36 Heziketa prozesuan zehar ahalmen kognitiboekin batera adimen afektibo-emozionala ere landuko duten ikasleak.
- 37 Autonomia eta elkartasunean heziak, haien burua ezagutu (mugak eta ahalmenak egokiro baloratuz), eta dagozkien zereginei aurre egiteko bitartekoak aurkitzeko gai izango direnak.
- 38 Haien buruarekiko eta inguruarekiko jarrera baikor batetik abiatu eta erronka berriei ekiteko ilusioa eta gogoia izango duten ikasleak, bai lan munduan murgiltzera badoaz eta baita goi mailako ikasketekin jarraitzera badoaz ere.
- 39 Ikasten ikasiko duten ikasleak; izan ere, ikastea bizitza osorako prozesua baita.

- 40 Arazoen aurrean aukerak eta erronkak antzemateko gai izango direnak, eta sormena eta ekimena lanean jarriz bide berriak saiatzeko gai izango direnak.
- 41 Parte hartzaileak, elkarlanean jarduten ikasiak, desberdintasunak errespetatzen dituztenak, ohitura osasungarriak izango dituztenak, kritikoak eta eraikitzaileak.

### **Nolako irakasleak beharko ditugu proiektu honetan?**

- 42 Ikasle guztien arrakasta bilatuko duten irakasleak, hau da, pertsona osotasunean hartuta bakoitzaren gaitasunak garatzen lagunduko dutenak (kognitiboak, afektiboak, sozialak, sormenezkoak...) eta, beraz, aniztasunari erantzun ahal izateko metodologia, bitarteko eta baliabide aproposak erabiltzeko prestatuak edo prestatzeko borondatedunak.
- 43 Eguneroko lanaren gaineko hausnarketaz baliatuko direnak, eta beraz, jardueraren etengabeko ebaluazioan oinarrituko direnak. Pedagogia-irizpideen azterketa eta jarraipena izango da Ikastetxearen ardatz nagusietakoa.
- 44 Bestetik, jarduera pedagogikoa Hezkuntza Proiektu honetan aipatzen diren balioen arabera lan egiteko konpromisoa hartuko dute.
- 45 Diziplinartekotasuna eta koherentzia zaintzeaz gain, ikasleen interesa pizten saiaturiko dira. Beste irakasleekin elkarlanean arituko dira, ikastetxeak horretarako antolatuko dituen eremuetan (zikloak, mintegiak, koordinazio taldeak etab). Eta, era berean, prest azalduko dira familiekiko, inguruko eragileekiko, enpresekiko nahiz instituzioekiko harremanetarako.
- 46 Ikastetxeak irakasleek beren gaitasunak garatu eta etengabe eguneratu ditzaten bultzatuko du, eta, horretarako, irakasleen prestakuntzarako behar adineko baliabideak bermatzen ahaleginduko da.

Era berean, ikaslearen heziketan irakasleak duen eragina eta garrantzia kontuan hartuta, eta horrek guztiak irakasleen benetako inplikazioa erraztuko duelakoan, ikastetxeak irakasleen lan baldintzak eta ohitura osasungarriak zaindiko ditu.

### **Hezkuntza Komunitate barneko harremanak**

- 47 Elkarrenganako errespetuan eta elkarlanean oinarrituko dira ikastetxe barneko harremanak. Sentimendu, informazio eta iritzien elkartrukatzea eta partekatzea aberastasun iturritzat jotzen dugunez, ikastetxeak parte-hartze bideak bermatu eta sustatuko ditu.
- 48 Lan batzordeetan eta kudeaketa eta erabaki organoetan ikasle, irakasle, guraso eta langile ez irakasleen parte hartzea bermatu eta sustatuko da kontsentsuan eta baliokidetasunean oinarriturik.

### **Kanpoko eragileekin lankidetzak**

- 49 Izpiritu berberarekin bilatu eta bermatuko ditugu harremanak eta elkarlana herriko beste eragileekin, eskolekin, enpresekin, administrazioarekin nahiz beste erakundeekin eta zerbitzuekin. Hernaniko LHko eta Urnietako BHIko ikastetxe guztiekin koordinazioa eta lankidetzeta ziurtatuko ditugu. Era berean, norabide honekin bat datozen proiektu eta harreman sistemak ere baliatuko ditugu, ahal den heinean (Comenius, kasu).

### **Egoitza. Arkitektura.**

- 50 Azpiegitura, ekipamendua eta antolaketa hezkuntza proiektuaren mesedetan egongo da, eta berori gauzatzeko eratuko dira esparru aproposak: ikasgelak, biltzeko eta informazioa trukatzeko gelak, bikoizketa gelak, gimnasioa eta kirol gunea, esperimendatzeko laborategi eta tailerrak, sortzeko esparruak, komunikatzeko...
- 51 Ikastetxearen ordutegia irekia izango da ordu akademikoez gain instalazioen erabilera anitza sustatzeko: ikasleen parte hartzea, gurasoen bilgune...
- 52 Eraikinen antolaketan masifikazioa ekiditea izango da lehenetsiko den ikuspegia. Bai eraikinen banaketan, zein zerbitzuen erabileran. Jangelako txandak, jolas-garaiak, gimnasioak... espazio komunak gainezka egon ez daitezten.
- 53 Bestetik, arreta berezia eskainiko diogu inguruari eta horren zaintzari (apaingarriak, berdeguneak, landaretza etab.). Sostengarritasun eta ekologia irizpideak kontuan hartuko dira oinarrizko printzipio gisa.
- 54 Hezkuntza komunitate osoak ikastetxea bere sentitzea bilatuko dugu. Bereziki ikasleen parte hartzea sustatuko da eraikinaren ezaugarriak eta zehaztapenak erabakitzerakoan. Txukuntasuna, goxotasuna eta pertsonalizazioa izango ditugu helburu, denon artean zaintzen eta kudeatzen ditugun esparruetan erosoago eta gusturago aurkituko garelakoan. Komunitate osoaren parte hartzea bultzatuko dugu azpiegituren kudeaketan, eta, horretarako, propio sortuko den batzordean.

### ***Nolako heziketa egiteko asmoa dugu? Zer ikasita irtetea nahiko genuke?***

#### **Gaitasunen irakurketa propioa**

- 55 Arduraz eta autonomiaz bizitzen ikastea, hau da, ardurak eta erabakiak hartzeko ekimena izatea eta norberak hartutako erabakien erantzukizuna hartzea.
- 56 Erabakiak hartzen, arazoak konpontzen eta pentsatzen ikastea, horretarako sortzaileak eta ekintzaileak izateko estrategiak eskuratzea, adibidez, ideiak sortzeko teknikak (brainstorming, mapa mentala), ideiak ebaluatzeko teknikak (DAFO), eta jakintza zientifikoko eta matematikoko metodoak aplikatzen ikastea.
- 57 Norberaren osasun fisikoa zaintzen ikastea eta ohitura osasuntsuak hartzea.

- 58 Ikasten eta ikastea, ikasleak izan behar dira ikasketa prozesuaren protagonistak eta arduradun nagusiak, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioetsiz eta ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta estrategiak eskuratuz.
- 59 Informazioa sortzea, interpretatzea eta ebaluatzea, horretarako komunikabideak eta komunikaziorako teknologia berriak gero eta irizpide kritikoarekin eta autonomia handiagorekin erabiltzen jakitea, eta teknologia honen erabileran izan daitezkeen arriskuak saihesten ikastea.
- 60 Hizkuntza ofizialetan, eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean hitz egiten ikastea eta komunikazio gaitasuna garatzea, hau da, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko estrategiak eskuratzeko, eta aurreiritziak eta hizkuntza estereotipoak baztertzeke.
- 61 Elkarrekin bizitzen ikastea, eta, berariaz, harreman positiboak izaten eta, gatazka-egoeretan, elkarrizketara eta negoziatziora jotzen ikastea asertibitatea, enpatia eta umorea erabiliz. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzen ikastea.
- 62 Pertsona gisa garatzen ikastea, eta emozio negatiboak (antsietatea, impulsibitatea) erregulatzen ikastea eta norberaren mugak eta ahalmenak era positiboan baloratzuz norberaren irudi errealista izaten ikastea.
- 63 Izadiak eta natura-baliabideez arduraz gozatzen ikastea, gizadi osoaren eta egungo nahiz geroko belaunaldien ondarea diren aldetik.
- 64 Giza kultura eta artea gozatzen ikastea eta ondare kulturala balioestea.
- 65 Ikasleek komunikatzeko gaitasuna garatu behar dute, aurkitzen diren egoera bakoitzean egokiena den hizkuntzaren erregistroa erabiltzeko gaitasuna, ahozkoa nahiz ahozkoa ez den hizkuntzaren bitartez mezuak osatzeko eta indartzeko gaitasuna.
- 66 Eskola jarduera osoaren bidez lortu nahi ditugu orain arte aipatutako gaitasunak, eta oinarrizko bitartekotzat jotzen dugu diziplinartekotasuna (arloan arteko lotura moduan ulertuta). Bere osotasunean hartuko dugu ikaslea, saihestuz pertsona atal desberdinen batuketa gisa ulertzen duen ikuspegia (intelektuala batetik eta emozionala bestetik).
- 67 Ikastetxe honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapaz gain, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako zikloak eskaintzen ditugu. Batxilergoan ondorengo ikasketetarako bideak irekitzen utziko dion eta ikasketa horietan arrakasta izaten lagunduko dion gaitasunak lortzea ezinbesteko izango da.
- 68 Lanbide Heziketako ikasleek bere arloko lanbide batean modu egokian aritzeko ezinbestekoak diren gaitasun teknikoak eta giza gaitasunak lortu behar ditu. Aldi

berean, ikasleren batek ikasten jarraitu nahiko balu, bide horretan arrakastaz aritzea erraztuko lizkiokeen gaitasunak garatu beharko ditu.

- 69 Gaitasun hauetako batzuek, zehar landuko dira, esaterako, ikasten ikasteko gaitasuna, hizkuntza komunikaziorako gaitasuna, informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna, eta norberaren autonomiarako gaitasuna. Beste batzuk, gaitasun matematikoa, arte eta kultura... arlo jakin baten curriculumean landuko dira.
- 70 Azken finean, burua ondo garatzea ez baita informazioa errepikatzea, baizik eta ideiak lotzea eta argudioak ematea. Buru ongi antolatuak nahiago baititugu buru oso beteak baino.

## ***Antolamendua eta funtzionamendua***

### **Oinarrizko irizpideak**

- 71 Gure ikastetxearen antolamendua eta kudeaketa Hezkuntza Proiektu honetan hartutako hezkuntza-printzipioei, irizpideei eta helburuei lotuko zaizkie. Ikastetxeko parte hartze, koordinazio eta zuzendaritzak ondoko ezaugarri eta oinarrizko irizpideak izango ditu:
- 72 Hiru etapatan antolatuko gara: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, eta Lanbide Hezkuntza. Bakoitzak dituen xede, ezaugarri eta beharrei egokituko zaio funtzionamendua, etapa bakoitzaren autonomia bermatuz.
- 73 Irakasleak, ez-irakasleak, gurasoak eta ikasleak, komunitatearen partaide dira. Denok nahi dugun eskola eraikitzea denon egiteko eta ardura da. Ikastetxea ez da ulertzen parte hartze aktiborik gabe. Elkarlana, elkarrizketa eta komunitate osoaren parte hartzea dira funtzionamenduaren oinarri.
- 74 Parte hartzeko guneak ahalik eta hurbilenak izango dira gure ikastetxean. Lehen eskuko informazioa, eta irizpide eta proposamenen elkartrukea erraztuko dituzten guneetan oinarrituko da. Batzar organoetan hartuko dira erabaki nagusiak. Ahal den guztietan kontsentsuan oinarrituko dira.

### **Gurasoen eta ikasleen parte hartzea**

- 75 **Gela-bilerak** dira ikasleak eta gurasoak parte hartzeko oinarrizko guneak. Gela bakoitzeko tutorea (edota ekipoko beste irakasleak) gurasoekin edo ikasleekin elkartuko dira, eta horretarako gune eta denbora tarteak zehaztuko dira. Bertan, ikastetxeko kudeaketa eta gelako martxa izango dira aztergai.
- 76 Geletako guraso edo ikasle ordezkariak dira Ordezkaritza Organo Goreneko kide, irakasle ordezkariekin batera. Lotura zuzena bermatzen da horrela parte hartze

zabal eta oinarrizkoenetik (gela) ikastetxeko erabaki nagusiak hartzen diren guneraino (OOG), joan eta etorrian.

- 77 Ikasle, irakasle, familia, eta ez irakasleek **batzordeetan** izango dute lankidetzarako beste gune esanguratsu bat: ekonomia, elkarbizitza, azpiegitura... bertan landuko dira, gero proposamenak OOGra eramateko.

### **Irakasleen koordinazioa**

- 78 Irakasleek bi gune garrantzitsu izango dituzte pedagogia koordinaziorako: batetik maila edo zikloko irakasle ekipoak, ikastalde eta gela bertan diharduten irakasleen arteko koordinazioa ziurtatzeko; bestetik, mintegietako ekipoak, jakintza arloko curriculumaren diseinu eta garapenari heltzeko.
- 79 Hiru etapetako mailako koordinatzaileak eta mintegietako buruak bilduko ditu Pedagogia Batzordeak. Ikastetxe barruko irakasle ekipoen arteko kohesioa eta koherentzia sustatuko du batzar honek.
- 80 Klaustroa (irakasle guztien bilkura) tarteka bilduko da eskola osoari dagozkien gaiak jorratzeko. Oro har, irakasleek etapaka jardungo dute.

### **Zuzendaritza**

- 81 **Ordezkaritza Organo Gorena** da eskola osoari dagozkion erabaki nagusiak hartzeko bilgunea. Bertan bildutako ikasle, guraso, irakasle eta ez irakasleek, ordezkatzan duten taldearen edo batzordearen iritzia helaraziko dituzte eta kontsentsu handinez adosten ahaleginduko dira.
- 82 **Zuzendaritza Taldeak** hiru etapen arteko koordinazioa sustatuko du. Hartara, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, eta Lanbide Hezkuntzako koordinatzaileak zuzendaritza taldeko kide izango dira.
- 83 Eskolako Antolakuntza eta Jarduera Araudiak zehaztu eta garatuko ditu Hezkuntza Proiektu honetan jaso diren oinarrizko irizpideak.

### ***Hezkuntza Proiektuaren eraginkortasuna bermatzeko neurri positiboak***

- 84 Batetik, Hezkuntza Proiektua beste hainbat egitasmoren bitartez garatuko da. Ikastetxeko Curriculum Proiektua, Zuzendaritzen Kudeaketa Egitasmoak, Antolaketa eta Jarduera Araudia, Eraikuntza Proiektua, Elkarbizitza Planak, Hizkuntza Proiektua, Tutoretza Planak, IKT Plana, Berdintasunaren aldeko Neurriak, Laguntza emateko irizpideak, Urteroko ikasturteko planak eta memoriak, Gelako Programazioak... denak dira, bakoitza bere eremuan eta bere lan epean, Hezkuntza Proiektua zehaztu, egokitu, garatu eta gauzatzeko aukera eta lanabes. Egitasmo guzti horiek diseinatu eta garatzerakoan IHP-an oinarrituko gara.

- 85 Eta, batez ere, egitasmo guzti horien jarraipena eta ebaluazioa gauzatzean, IHP-ko irizpide nagusiak izango dira iparrorratza. Dokumentu estrategikoan hartu den norabiderantz sinergiak sortzen ote diren, eta planteatu diren erronkei egokiro erantzuten ote dioten ikusi beharko da jarraipen eta ebaluazio prozesu horietan. Proiektua finkatu bitartean, bere jarraipenaz arduratuko den IHP Batzordea eratuko da. Batzorde ezberdinek beraien helburuak IHPen hartutako ildoen barruan uztartzen ari diren aztertuko dituzte. Balorazioak kontutan hartuz egoki deritzon proposamenak jasoko dira eta IHP Batzorde orokorrean aztertu eta koordinatuko dira, beharrezkoak ikusten diren moldaketak proposatzeko.
- 86 Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua gauzatzeko ikastetxeko baliabideak bertan lehenetsi diren ildoetara bideratuko ditugu. Baliabide funtzional urria izanik, lan denboraren kudeaketak berebiziko garrantzia izango du: irakasleen koordinazio horizontala eta bertikalak behar dituen lan orduak; etapetako koordinazioaren ardura hartuko duten pertsonen lan denborak; tutoretza behar bezala egiteko beharko dena, irakasleriaren prestakuntza eta berrikuntza pedagogikoa... posible gertatuko dira baldin eta, haietara, behar diren baliabideak, tartean denbora, bideratzeko gauza baldin bagara.

PARTE HARTZEA, KOORDINAZIOA eta ZUZENDARITZA

